



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE  
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

## HITZA#2

### Euskal Herriko Garapen Kontseiluko iritzia

# Mendia bizi dadin!

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak mendiaren etorkizunari buruzko iritzi bat<sup>1</sup> onartu du 2022an. Lurralde guzietako eragile eta biztanle anitz bildu dituen eta parte harrarazi dituen mintegi baten emaitza da. Ekoizpen horrek Euskal Hirigune Elkargoaren mendiko politika inspiratu du eta Eskualdeko Parke Naturalaren egitasmorako oinarritzko printzipio batzuk ekartzen ditu.

Azken 20 urte hauetan, mendiak aldaketa handiak bizi izan ditu, eta aldaketa horiek ahuldu dute: laborantza eta oihangintzako jarduerak ahuldu dira, turismo- eta aisialdi-jarduerak garatu, klima-aldaketa gertatzen ari da... Dinamika kolektibo berriak ere sortu dira 2003ko Garapen Kontseiluaren txostenaz geroztik: Mendiko Hitzarmen bat, Europako bi programa (Leader), eta orain Eskualdeko Parke Natural proiektu bat... Orduan, zer mendi nahi dugu etorkizunerako?

Bistan da: **giza izarikoa!** Hori baita mendiak Euskal Herrian duen ezaugarri nagusia: bizia, populatua, joateko erraza, eta gailurretaraino erabilia, laborantza-artzaintzaren dinamismo berrituari eta haren bizimoduarekiko atxikimenduari esker. Jendearen jarduerak dute euskal mendia moldatu. Eta eredu hori Pirinioetan eta Europako beste mendiguneetan galtzen den bitartean, Ipar Euskal Herria, aldiz, ekoizpen-jarduerak lehentasuna izaten segitzen duten mendi baten laborategia da; eta jarduera horiek gure lurraldearen ospean parte hartzen duen paisaia-kalitatea mantentzen dute.

Bai, mendia Euskal Herriaren nortasunaren funtsezko ezaugarria da. Lurraldearen "erroen" eta **Euskal Herriaren arimaren** parte da. Mendia ondasun komuna da, eta horren balioak jende ahalik eta gehienei helarazi behar zaizkie. Hori da lehen desafioa.

Mendia askatasun-eremutzat hartzen bada ere, haren erabiltzaileek **errespetua zor** diete lanerako tresna duten pertsoneri. Lanerako tresna hori zaintzen dute, biziki erakargarri bihurtzeraino azken urteetan gora ari diren aisialdi-jarduerendako: hori da paradoxa guzia! Mendia hain ederra izateko arrazoa da, justuki, ez dela hunkigabea! Emazteek, gizonek eta beren artaldeek landu eremua da...

Dudarik gabe, laborantza eta artzaintza jarduerak aldatzen ari dira, baina, hala ere, euskal mendia sekula baino sendoago den eredia da, tresna berriak sortuko diren tenorean. Garapen Kontseiluko kideen iduriko, **laborantza-artzaintzak** izan behar du **lehentasuna**, mendiaren zutabe ekonomiko, sozial eta kulturala baita; baina laborantza jarduera horrek ingurumenaren alde betetzen duen funtzioagatik eta bere erabilgarritasun sozialagatik onartua izan behar da.

Etorkizunerako beste orientabide bat: **mendia turismo eta aisialdi garapen bortitzegi batetik zain dezagun!** Euskal mendia ez da jolas-parke bihurtu behar, ezta bere garapena izoztuko lukeen natura- eta ondare-babesgune ere.

---

<sup>1</sup> [societecivile-paysbasque.com](https://societecivile-paysbasque.com) webgunean eskuragarri da.

Euskal Herriko mendiari buruzko irudimen komun bat bada, balio eta jarduera sozial partekatuak, baina **errealitate anitz badira mendigunean**, Biriaturtik Santa Grazira, mendi garaietako eta kanpainako arazoan artean. Alhupide kontuak, bai eta herrien garapenarekin, etxebizitzarekin, numerikoarekin... lotuak. Bizi den eta bizirik segitu nahi duen mendi baten desafio guziak.

**Mendiko kudeaketa- eta gobernantza-tresnen hedatzea ez da tokiko garapenaren eta mendien mugaz gaindiko ahalmenaren kaltetan egin behar.** Mendi eremua euskalduna baita, Pirinioetako bi isurialdeetan... Azkenik, nola lortu mendiko eremuaren instituzionalizazioak ez dezan ito tokiko ekimenen eta animazioen kultura, gizarte zibilaren eta hautetsien artean azken 20 urteetan obratu ko-eraikuntza hori?

Zalantzarik gabe, euskal mendia "**gizarte proiektu erakargarri**" baten laborategia da, eta Euskal Herriko biztanle guzien arreta kolektiboa merezi luke, aparteko ondare horren zaintzaileak baitira.